**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN**

**63/2024 TXOSTENA**

**Gaia:** Telelanaren Araudiaren aldaketa onartzea

**Espediente zenbakia:** IDA_ERA_0133 (2019)

**Espediente sustatzailea:** Langileria saila

**Espediente tramitatzailea:** Idazkaritza saila

**Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.1 artikulua

**Aurrekariak**

**Lehena.-** 2024ko urriaren 4ko eta CSV: 07E80010F19C00X9X7V3H5P9D4ko Idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariaren justifikatze txostenaren arabera Telelanaren Araudiaren aldaketa onartzeko beharrizana dago.

**Bigarrena.-** Telelanaren Araudiaren aldaketa onartzeko kontsulta publikoa egin da Bermeoko udaleko webgunean 2024ko irailaren 4tik 18ra arte, konpondu nahi diren arazoak egokitasuna, helburua eta beste aukera erregulatzialeak azalduz.

**Hirugarrena.-** 2024ko urriaren 4ko eta CSV: 07E80010F1BF00L3X7J2M1D6K1eko Idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako erabaki proposamenaren arabera kontsulta publikoan ez da ekarpenik jaso.

**Laugarrena.-** 2024ko urriaren 4ko eta Idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak Telelanaren Araudiaren aldaketa onartzeko zirriborroa prestatu

CSV: 07E8001150AA00H2K3S9U6W5P3



| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E8001150AA00H2K3S9U6W5P3 | Sinadurea eta datea: JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/11/2024 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 07/11/2024 10:53:22 | EXPEDIENTE :: 2019IDA_ERA_0133 Datea: 05/08/2019 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

du (CSV: 07E80010F19C00X9X7V3H5P9D4) eta berorri onartzeko proposamena (CSV: 07E80010F1BF00L3X7J2M1D6K1) egin du.

**Bosgarrena.-** Gaia 2024ko urriaren 24eko negoziazio mahaian negoziatu da (8/2024 aktan ikus daitekeenez).

**Oinarri juridikoak**

**1. Aplikagarria den araudia**

- Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena (TREBEP)

- Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena (ET)

- Abenduaren 1eko 11/2022 Legea, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa (LEPV)

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena (4.1.a, 22.2.d, 25, 49, 65.2, 70.2 artikuluak)

- 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki erakundeen zerbitzuen araudia onartzen duena (23-29 artikuluak)

- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki erakundeen lege xedapenen Testu Bateratua onartzen duena. (56 artikulua)

- Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedimendu Erkidearen Legea (128,129 eta 133 artikuluak)

**2. Azterketa juridikoa**

**A) Oinarrizko kontzeptuak**

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legeak 4.1.a artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedimendu Erkidearen 39/2015 Legearen 128.artikuluan aitortzen da udalek duten eskumena araudiak egiteko eta autoorganizaziorako. Hori horrela, Bermeoko Udalak bere eskumenen inguruan legeek ezarritakoa garatu dezake izaera orokorreko xedapen administratiboen bitartez, zeintzuk beti legea errespetatu behar duten.

CSV: 07E8001150AA00H2K3S9U6W5P3



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8001150AA00H2K3S9U6W5P3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 07/11/2024 10:53:22

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0133
Datea: 05/08/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

Bermeoko Udalaren zerbitzura ari diren langileen Lan Baldintzak Arautzen dituen akordioaren 21. artikuluak, aukera ematen du zerbitzu jakin batzuetako ordutegian malgutasun handiagoa izateko neurri batzuk adosteko langileen ordezkaritzarekin, baldin eta zerbitzu horien kalitatea ez bada txikitzen eta beharrezko kudeaketa eta kontrol tresnak bidera badaitezke. Era berean, Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duenaren 47 bis artikuluak eta Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 34.8 atalak telelana arautzen eta onartzen dute.

Hori horrela, egoki ikusten da Bermeoko Udaleko langileek zerbitzua telelanaren bidez lantokian bertaratu gabe emateari buruzko araudiaren aldaketa onartu ahal izatea.

Araudia onartzeko nahitaez 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezartzen diren printzipioak errespetatu behar dira espediente guztian zehar, hau da, beharrizana, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia printzipioak.

Kuantifikatu eta balioetsi behar dira ordenantzaren eragin eta erreperkuzioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

**B) Jarraitu beharreko prozedura**

39/2015 Legearen 129, 132 (ordezko moduan) eta 133. artikuluak (indarrean dauden ataletan), 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikulua eta 7/1985 Legearen 49 eta 70.2 artikulua kontuan hartuta prozedura hurrengoa izan behar da:

a) Ordenantza udalaren urteko plangintzan aurreikusita egotea (39/2015 legearen 132art).



CSV: 07E8001150AA00H2K3S9U6W5P3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8001150AA00H2K3S9U6W5P3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 07/11/2024 10:53:22

EXPEDIENTE :: 2019IDA_ERA_0133
Datea: 05/08/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Bermeoko Udalaren 2024ko Araudi Planean aurreikusi da.

Argi utzi behar da, Francisco Velasco Caballero eta Irene Araguas Galcera moduko adituek defendatzen dutela Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 24ko 55/2018 epaiaren geroztik artikulu hori ez dela Toki erakundeentzat oinarrizkoa. Dena den, Bermeoko Udalaren autoorganizaziorako eskumenaren barruan praktika ona da berorri burutzea.

b) Teknikariak justifikatuko du Telelanaren Araudiaren aldaketa onartzeko beharrizana eta erregulazio oneko printzipioak errespetatu direla.

Justifikatu du 2024ko urriaren 4ko justifikatze txostenean.

c) Negoziazio mahaian negoziatu da

TREBEPeko 37.2.a bigarren paragrafoaren arabera eta 47 bis artikuluaren arabera beharrezkoa da negoziazioa eta espedientean negoziazio mahaiko akta jaso da.

d) Hala dagokionean, ordenantza aldatzeko proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Bermeoko Udalaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- Arau hori onestea beharrezko eta egoki den
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Aurrekarietan jaso den moduan izapide hori prozeduran burutu izan da.

e) Idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak Telelanaren Araudiaren aldaketa onartzeko erabaki proposamena egin du.

Erabaki proposamena egin da eta edukiari dagokionez zuzena da.

Kontuan izan behar da TREBEPen 47 bis artikuluak diola:

**“Artículo 47 bis. Teletrabajo.**

1. Se considera teletrabajo aquella modalidad de prestación de servicios a distancia en la que el contenido competencial del puesto de trabajo puede desarrollarse, siempre que las necesidades del servicio lo permitan, fuera de las



CSV: 07E8001150AA00H2K3S9U6W5P3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8001150AA00H2K3S9U6W5P3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 07/11/2024 10:53:22

EXPEDIENTE :: 2019IDA_ERA_0133
Datea: 05/08/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

dependencias de la Administración, mediante el uso de tecnologías de la información y comunicación.

2. La prestación del servicio mediante teletrabajo habrá de ser expresamente autorizada y será compatible con la modalidad presencial. En todo caso, tendrá carácter voluntario y reversible salvo en supuestos excepcionales debidamente justificados. Se realizará en los términos de las normas que se dicten en desarrollo de este Estatuto, que serán objeto de negociación colectiva en el ámbito correspondiente y contemplarán criterios objetivos en el acceso a esta modalidad de prestación de servicio.

El teletrabajo deberá contribuir a una mejor organización del trabajo a través de la identificación de objetivos y la evaluación de su cumplimiento.

3. El personal que preste sus servicios mediante teletrabajo tendrá los mismos deberes y derechos, individuales y colectivos, recogidos en el presente Estatuto que el resto del personal que preste sus servicios en modalidad presencial, incluyendo la normativa de prevención de riesgos laborales que resulte aplicable, salvo aquellos que sean inherentes a la realización de la prestación del servicio de manera presencial.

4. La Administración proporcionará y mantendrá a las personas que trabajen en esta modalidad, los medios tecnológicos necesarios para su actividad.

5. El personal laboral al servicio de las Administraciones Públicas se regirá, en materia de teletrabajo, por lo previsto en el presente Estatuto y por sus normas de desarrollo."

Era berean, Langileen Estatutuaren 34. artikuluko 8. Atalak zera jaso du:

*"8. Las personas trabajadoras tienen derecho a solicitar las adaptaciones de la duración y distribución de la jornada de trabajo, en la ordenación del tiempo de trabajo y en la forma de prestación, incluida la prestación de su trabajo a distancia, para hacer efectivo su derecho a la conciliación de la vida familiar y laboral. Dichas adaptaciones deberán ser razonables y proporcionadas en*



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea: 07E8001150AA00H2K3S9U6W5P3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 07/11/2024 10:53:22

EXPEDIENTE :: 2019IDA_ERA_0133
Datea: 05/08/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*relación con las necesidades de la persona trabajadora y con las necesidades organizativas o productivas de la empresa.*

*En el caso de que tengan hijos o hijas, las personas trabajadoras tienen derecho a efectuar dicha solicitud hasta que los hijos o hijas cumplan doce años.*

*Asimismo, tendrán ese derecho aquellas que tengan necesidades de cuidado respecto de los hijos e hijas mayores de doce años, el cónyuge o pareja de hecho, familiares por consanguinidad hasta el segundo grado de la persona trabajadora, así como de otras personas dependientes cuando, en este último caso, convivan en el mismo domicilio, y que por razones de edad, accidente o enfermedad no puedan valerse por sí mismos, debiendo justificar las circunstancias en las que fundamenta su petición.*

*En la negociación colectiva se podrán establecer, con respeto a lo dispuesto en este apartado, los términos de su ejercicio, que se acomodarán a criterios y sistemas que garanticen la ausencia de discriminación, tanto directa como indirecta, entre personas trabajadoras de uno y otro sexo. En su ausencia, la empresa, ante la solicitud de la persona trabajadora, abrirá un proceso de negociación con esta que tendrá que desarrollarse con la máxima celeridad y, en todo caso, durante un periodo máximo de quince días, presumiéndose su concesión si no concurre oposición motivada expresa en este plazo.*

*Finalizado el proceso de negociación, la empresa, por escrito, comunicará la aceptación de la petición. En caso contrario, planteará una propuesta alternativa que posibilite las necesidades de conciliación de la persona trabajadora o bien manifestará la negativa a su ejercicio. Cuando se plantee una propuesta alternativa o se deniegue la petición, se motivarán las razones objetivas en las que se sustenta la decisión.*

*La persona trabajadora tendrá derecho a regresar a la situación anterior a la adaptación una vez concluido el período acordado o previsto o cuando decaigan las causas que motivaron la solicitud.*



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8001150AA00H2K3S9U6W5P3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 07/11/2024 10:53:22

EXPEDIENTE :: 2019IDA_ERA_0133
Datea: 05/08/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*En el resto de los supuestos, de concurrir un cambio de circunstancias que así lo justifique, la empresa sólo podrá denegar el regreso solicitado cuando existan razones objetivas motivadas para ello.*

*Lo dispuesto en los párrafos anteriores se entiende, en todo caso, sin perjuicio de los permisos a los que tenga derecho la persona trabajadora de acuerdo con lo establecido en el artículo 37 y 48 bis.*

*Las discrepancias surgidas entre la dirección de la empresa y la persona trabajadora serán resueltas por la jurisdicción social, a través del procedimiento establecido en el artículo 139 de la Ley 36/2011, de 10 de octubre, reguladora de la jurisdicción social."*

f) Txosten ekonomikoa egin beharko da kuantifikatzeko eta balioesteko ordenantzaren eragin eta erreperkuzioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

Txosten ekonomikoa behar ezean, Kontuhartzailearen diligentzia jaso beharko da espedientean, non jasotzen den kasu honetan ez dela txosten ekonomikorik behar.

g) Generoaren araberako eragina ebaluatu behar da.

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duenaren 19. Artikuluaren eta 20. artikuluaren arabera, generoaren araberako eraginaren aldez aurreko ebaluazioa egin behar eta, hala badagokio, desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko.

Bermeoko Udaleko langileek zerbitzua telelanaren bidez lantokian bertaratu gabe emateari buruzko araudiaren aldaketaren generoaren araberako eragina ebaluatu da, Idazkaritza saileko AOTaren eta Berdintasun teknikariaren 2024ko azaroaren 4ko txostenean ikusten den moduan (CSV: 07E8001141AC00D3G2P8Q5Y0F5).

CSV: 07E8001150AA00H2K3S9U6W5P3



STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.<br>Kodea:<br>07E8001150AA00H2K3S9U6W5P3 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/11/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 07/11/2024 10:53:22 | EXPEDIENTE :: 2019IDA_ERA_0133<br>Datea: 05/08/2019<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

h) Idazkari nagusiak txostena egin beharko du.

Behin idazkariaren aldeko txostena izanda hurrengo pausuak eman beharko dira.

i) Informazio batzordeak erabaki proposamenaren irizpena eman beharko du.

j) Osoko bilkuraren ordenantza hasieraz aldatzea onartuko du, gehiengo soilez, 7/1985 Legearen 22.2.d eta 47. artikuluekin bat etorriz.

k) Informazio publikoa eta entzunaldia gauzatuko dira, interesdunek 30 eguneko epean erreklamazio edo iradokizunak aurkezteko. Hasierako onarpena webgunean, ediktuen taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

l) Osoko Bilkurak aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak ebaztea eta behin betikoz ordenantza onartzea.

Hasierako onarpenean ezarri daiteke erreklamaziorik izan ezean Bermeoko udalerrian udal artxiboa arautzeko ordenantza automatikoki behin betikoz onartuta egongo dela baina horretarako arduradunaren txostenean oinarritutako idazkariaren ziurtagiria beharko da alegaziorik egon ez direla egiaztatuz.

m) Erabakia eta aldaketen testua argitaratu beharko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bermeoko Udaleko gardentasun atalean eta ediktuen taulan eta indarrean sartuko da BAOn argitaratu eta 15 egun igarota, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluaren arabera.

**Ondorioak**

Espedientea aztertu ondoren, Bermeoko udalerrian udal artxiboa arautzeko ordenantza onartzeko proposamenari **aldeko txostena oharrarekin** egiten zaio.

Oharra: Txosten ekonomikoa falta da edo, bere ordez, Kontuhartzailearen diligentzia, non jasotzen den kasu honetan ez dela txosten ekonomikorik behar.

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

CSV: 07E8001150AA00H2K3S9U6W5P3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8001150AA00H2K3S9U6W5P3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 07/11/2024 10:53:22

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0133
Datea: 05/08/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, txosten hau ez da loteslea eta Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, orri oinean zehaztuta datan

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia




CSV: 07E8001150AA00H2K3S9U6W5P3

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E8001150AA00H2K3S9U6W5P3 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/11/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 07/11/2024 10:53:22 | EXPEDIENTE :: 2019IDA_ERA_0133<br>Datea: 05/08/2019<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|